

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

UNTZA-APREGINDANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2020ko lehenengo seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea

Untza-Apregindanan, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2020ko lehen seihilekoa) ordaindu behar dutenen errolda egin da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Espedientea Arabako Untza-Apregindanako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango da.

Zergadun errolda jendaurrean jarrita, osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorri Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 9. artikulua-ren 3. apartatua xedatutakoarekin; dena dela, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete esleitu zaizkien kuoten aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarraren errejido-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2020ko urriaren 25ean hasi eta azaroaren 24an bukatuko da, bi egun horiek barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2020ko azaroaren 24an kobratuko zaie.

Untza-Apregindanako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Ordaintzeko borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargua aplikatuta, bat etorri Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, 28. artikulua xedatutakoarekin.

Untza, 2020ko irailaren 26a

Lehendakaria

JUAN ZUAZO ETXEBARRIA